



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilak 9

Vitoria-Gasteiz, 9 de abril de 2019

Lehendakaritza

ELKARREKIN BONOEN DEIALDIAK ONARTU DIRA, GUZTIRA 600.000 EURO

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaur **Elkarrekin Bonoen** programan jasotako diru laguntzen hiru lerroak deitzeari aurreten.

Zehazki, Elkarrekin Bonoen deialdia honako alor hauetako proiektuetarako onartu da: hezkuntza alorrekoetarako (350.000 euro), toki bizikidetzarako proiektuetarako (150.000 euro) eta herritarren partaidetzarakoetarako (100.000 euro).

Elkarrekin Bonoen programa 2014an jarri zen abian, bakea, giza eskubideak, indarkeria eza eta printzipio demokratikoak sustatzeko ahalegin gehigarri gisa. Horrela, irabazi asmorik gabeko erakunde baten eta ikastetxe baten, udaletxe baten edo herritarren parte-hartzearen esparruko erakunde baten artean sustatutako proiektuak lagunduko dira diruz.

Proiektu horiek ordaintzeko, Biktima eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bono sistema bat aurreikusi du, horiek kudeatzeko arduraduna baita zuzendaritza hori. Alegia, ekarpen ekonomiko bat egingo da, besteak beste, bakearen kulturari, giza eskubideei, adiskidetzeari edo gatazken konponbideari buruzko prestakuntza- edo dinamizazio-zerbitzuetan emandako eta justifikatutako ordu bakoitzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK, ITELAZPIREKIN LANKIDETZAN, BANDA ZABAL ULTRALASTERRA BESTE 82 LANDA-EREMUTARA ERE ERAMATEKO PROGRAMA ZABALDU DU

- **Gobernuak eta telekomunikazioen sozietate publikoak hitzarmena berri du Euskadin erabateko konektibitatea izateko programa luzatzeko**

Gobernu Kontseiluak, gaur, "Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eta [Itelazpi S.A.](#) sozietate publikoaren arteko lankidetzahitzarmena, 2019-2020 ekitaldientzako Euskadiko biztanle-nukleoetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak zabaltzen laguntzeko programaren kudeaketarako" hitzarmena onetsi du. Horrela, [Itelazpi S.A](#) Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazioen sozietatea izango da erakunde laguntzailea banda zabala Euskadin biztanle gutxien duten beste 82 landa-eremutara zabaltzeko laguntzak kudeatzeko.

Horren bidez, 2017aren eta 2019aren artean lan bera egitea helburu zuen hitzarmena berri du. Programa hartan, 391 "gune zuri" ezabatu ziren, % 72 Araban, askotan isolatuta dauden eta, telekomunikazioen azpiegiturarik ez dutelako, operadore pribatuak inbertsioak egiteko erakargarritasunik ez duten biztanle-nukleoak eta landa-eremuak.

EUSKADIKO 2020KO AGENDA DIGITALA

Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiek Euskadiko 1.700 eraikin publikoetan, parkeetan, poligonoetan eta industria-arloetan eta biztanle-nukleo guztietan banda zabala gaitzeko dituzten baterako jarduketara koordinatuz gainera, orain belaunaldi berriko banda zabaleko sareak Euskadiko biztanle-nukleoetan zabaltzeko laguntzak ere badaude.

Eusko Jaurlaritzaren proiektu handi eta estrategiko hau 2016an onetsitako "[Euskadiko Agenda Digitala 2020](#)" agendan sartzen da. Eusko Jaurlaritzak edozein biztanle-nukleoetan bizi diren pertsonen eta enpresen konektibitatea hobetzeko apustu argia egin du, nukleo horietako biztanle-kopurua eta dimentsioa zein den aintzat hartu gabe. Helburu nagusia ikastetxe, enpresa eta etxeen konektibitatea hobetzea da, Euskadi lurralde adimendun gisa finkatu ahal izateko, *Smart Country* finkatzeko.

Era berean, programa honen bidez, Euskadik "[Europako Agenda Digitala 2020](#)" agendan ezarritako helburuak bete ahalko ditu; bertan, belaunaldi berriko banda zabala (gutxienez segundoko 30 Mbp) biztanle guztietara unibertsalizatzea ezartzen du, eta 2020rako biztanleen % 50ek segundoko 100 Mbp-tik gorako abiadurako banda zabal ultralasterreko zerbitzu kontratatatuak izan ditzan lortzea.

2020 HITZARMENA

Gaur Gobernu Kontseiluak onetsi duen akordioak ezartzen du [Itelazpi S.A.](#) sozietatea arduratuko dela honako alderdi hauez:

- Aurkeztutako proiektuen dokumentazioa aztertzea eta, beharrezkoa bada, hura egoki ulertzeko eta aztertzeko beharrezkoa den dokumentazioa eskatzea.
- Proiektuak ebaluatu eta Ebaluazio Organoari bidaltzea.
- Laguntzak proposatzea eta Ebaluazio Organoari bidaltzea.
- Ikuskaritzak egitea, proiektuak betetzen direla egiaztatzeko.
- Eskatutako aldaketen irismenari buruzko txostenak egitea.
- Hala badagokio, proiektuaren betearazpenaren inguruan dauden gorabeherak betetzen ez direlako espedientea hasteko proposamena egitea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

ANIMALIEN ELIKADURAREN SEKTOREKO EUSKADIKO ESTABLEZIMENDUEN ERREGISTROA ETA KONTROLA ARAUTUKO DITU EUSKO JAURLARITZAK

- **Animalien elikadura funtsezko oinarria da elikagaien segurtasuna bermatzeko, elikagaien ekoizpenaren kateko lehen kate begietako bat da-eta**
- **Gaur egun animalien elikaduraren sektoreko 335 enpresa daude guztira Euskadin, eta horietatik 128 Bizkaian daude, 114 Gipuzkoan, eta 93 Araban**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak proposatuta, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Animalien Elikaduraren sektorearen Erregistro eta Kontrol Ofizialari buruzko Dekretua onartu du. Dekretuak, zehazki, animalien elikaduraren eremuko establezimenduen erregistroa arautzen ditu eta kontrol ofizialak antolatzen. Helburua da bermatzea pentsuak segurua eta osasungarriak direla, nekazaritzako elikagaien kateko lehen maila diren heinean, osasunaren babesean zuzeneko eragina dutelako. Horretarako, arau bakarrean biltzen ditu Euskadiko animalien elikaduraren kontrol ofiziala.

Animalien elikadura funtsezko oinarria da elikagaien segurtasuna bermatzeko, elikagaien ekoizpenaren kateko lehen kate begietako bat da-eta. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza Euskadiko pentsuen sektorearekin elkarlanean aritu da hainbat ekimen babesten, eta ahalegin horri esker posible izan da aurrera egitea, hobetzea eta segurtasunarekin konprometitutako sektorea edukitzea. Dekretu honen onarpena, hiru Foru Aldundien, erakunde profesionalen eta sektoreko elkarte eta erakunde babesarekin egin dena, beste urrats bat gehiago da zentzu horretan.

Erregistroa publikoa izango da, eta www.euskadi.eus web orriko nekazaritzaren arloari dagokion atalean eskuragarri egongo dira establezimenduaren izena edo sozietatearen izena, helbidea, jarduera eta identifikazio zenbakia. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren mende dagoen Erregistro Orokorrekin konektatuta egongo da, “Animalien elikadura establezimenduen erregistroarako sistema informatikoa” (SILUM) izeneko aplikazio informatikoaren bitartez.

2018ko datuen arabera, gaur egun animalien elikaduraren sektoreko 335 enpresa daude guztira Euskadin, eta horietatik 128 Bizkaian daude, 114 Gipuzkoan, eta 93 Araban. Dekretua hauei aplikatu beharko zaie:

- Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta egon eta animaliak elikatzeko erabiliko diren lehengaiak, aurrenahasketak, pentsu konposatuak, botika

pentzuak edo beste edozein produktu landu, merkaturatu, saldu eta garraiatzen dituzten edo horiekin lan egiten duten animalien elikaduraren sektoreko establezimenduak.

- Euskal Autonomia Erkidegoan errotuta egon eta beren abereentzako pentzuak fabrikatzen dituzten abeltzaintzako ustiategiak.
- Euskadiren lurralde eremuan fabrikatu, saldu, zirkulatu edo kontsumitzen diren animalien elikadurarako produktuak, baita botika pentzuak eta kokzidiostatoekin eta histomonostatoekin fabrikatutako pentzuak ere.
- Orokorrean, indarreko araudiaren arabera Dekretuaren bidez sortuko den Erregistroan sartu behar den edo kontrol ofiziala igaro behar duen edozein establezimendu edo enpresa.

Dekretu honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira indarreko araudiak albaitaritzako botikatzat jotzen dituen produktuak eta produktu horiei lotutako industriako edo merkataritzako jarduerak, bai eta pentsuen ekoizpen primarioa ere.

Baimen eskaerak modu telematikoan aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzako Egoitza Elektronikoaren bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoan jasoko dira. Galdetegia www.euskadi.eus web orrian dago eskuragarri eta etengabe eguneratuta, nekazaritzaren arloari dagokion informazioan.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

HURBILEKO KONPOSTAJE INSTALAZIO ETA JARDUERETARAKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUA ONARTU DA

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak proposatuta, hurbileko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen Dekretua onartu du gaur. Honako konpostaje hauek arautu dira: etxebizitza, bizilagun-komunitate eta udalenak, konpostaje-bolumena 10 metro kubiko baino handiagoa ez duena. Estatu mailan jarduera mota hauek arautzen dituen lehenengo dekretua da.

Etxeko eta komunitateko konpostajea Europar Batasuneko estatu kideek sustatutako jarduera dira, eta biohondakinen kudeaketari buruzko Liburu Berdea bezalako Batasuneko dokumentuetan gehitu da. Berau sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren baitako helburua da. Hala ere, ez zegoen, orain arte, berariazko araudirik, eta, hortaz, beharrezkoa izan da xedapen arautzaile bat ezartzea, Foru Aldundiek Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoan eskatu zuten moduan, hain zuzen ere.

Izan ere, Euskadin ezarri eta garatzen ari ziren ekimen horiek ez zuten nahikoa definitutako markorik, hondakinak prebenitzeko jarduera mota horren eta kudeatzeko baimena behar duten hondakinen tratamendurako beste jardueren arteko mugak ezartzen dituenik. Hori dela eta, eta ingurumena eta pertsonen osasuna babeste aldera, onartutako dekretuak ezartzen ditu etxeko biohondakinak konpostatzen diren instalazio eta jarduerak izan behar dituzten baldintzak, eta komunitate-konpostaje izan daitezkeen hondakinen inguruko baldintzak ezartzen ditu, baita horien instalazioen kokapen eta ezaugarriak eta ondoriozko konpostaren prozesu- eta kalitate-kontrolak ere.

Halaber, beharrezkoa da instalazio horiek pertsona titularra eta arduradun tekniko bat izatea, eta horien funtzioak ere ezarriko dira. Ikastetxeetan sortutako hondakinak, etxe-hondakinen antzerakoak baldin badira, sortzen diren leku berean konposta daitezke.

Biohondakinak etxebizitzetan sortzen diren hondakinen zati handia dira, baita aurrez zerbitzu eta industrietan sortu direnen antzerakoak ere. Euskadin etxeko hondakinen % 28 dira, guztira 317.781 tona izan ziren 2016an.

ekoiztutako konpostaren erabilereari dagokienez, Dekretuak arau aplikagarriara igortzen du hori, materiala zertarako erabili nahi den erabakitzen denaren arabera. Berariazko araudia izan ezean, erabiltzaileek lortutako konposta beren lursailetan erabil dezakete, arretaz, elikagai-katearekin kontakturik ez izateko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

ALTZAIRUTEGIETAKO ZEPA BALORIZATU ETA BESTE JARDUERA BATZUETARAKO ERABILTZEA SUSTATZEKO DEKRETUA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak proposatuta, altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zeparen balorizazioa arautzen duen Dekretua onartu du. Euskadin dauden altzairutegi kopuru handia dela eta, bertan sortzen diren zepak Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren hondakin ez arriskutsuen artean bigarren bolumen handienetakoa da, guztizkoaren % 16.

Dekretua “ekonomia zirkularraren” aldeko Europaren strategiaren baitan kokatzen da, eta horren helburua da baliabide naturalen erabileran eraginkortasuna hobetzea, lehengai gisa berrerabiltzea sustatu eta, hala, material berriak erauzte eta hondakinen isurketa murrizteko. Ekonomia zirkularra hazkunde iraunkorraren alde eta klima-aldaketaren aurka egiteko zutabeetako bat da.

Estrategia horri jarraiki, arau berriak –2003ko aurreko dekretua eguneratzen du– altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zeparen balorizazioa eta gerora agregakin siderurgiko gisa erabiltzea arautzen du, hala ingurumena eta osasun publikoa babestea bermatzeko.

Orain artean, indarrean dagoen araudiak ez du lortu zepak zabortegetan biltzea desagerraraztea, eta horrek ingurumen-inpaktuak dakartza. Dekretuaren helburua da, beraz, zepa horiek balorizatzea, eraikuntzan edota beste jarduera batzuetan erabiltzeko material pikordunak lortzeko, merkatuan balioa duten materialak lortzeko.

Ikerketek egiaztatu dute agregakinak eraikuntzan erabiltzeko (hormigoia) eta zementua fabrikatzeko dituen onurak, eta lehengaiak erauzi eta prozesatzearen ondoriozko ingurumen-inpaktuak murrizten dituela, baita ondoren zabortegetan biltzea murriztu ere.

Dekretuak azalpen-zati bat, hamaika artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat, hiru azken xedapen eta bi Eranskin ditu. Gainera, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak gida tekniko bat osatu du eraikuntzaren sektorean eman daitezkeen erabilerentzako, material hori gehiago erabiltzea sustatzeko.

Ogasun eta Ekonomia

JAURLARITZAK 35,2 MILIOI EURO BIDERATU DITU LEHENDAKARITZA, GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU, OSASUNA ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKARA, 2019RA LUZATU DEN AURREKONTUAN SARTZEN EZ DIREN EKINTZAK EGITEKO

Gobernu Kontseiluak Kreditu Orokorra 35.222.278 euro handitzea onartu du Lehendakaritza, Gobernantza Publikoa eta Autogobernua, Osasuna eta Kultura, eta Hizkuntza Politika Sailetarako; era horretan, 2019ra luzatutako aurrekontuan sartzen ez diren askotariko ekintzak finantzatuko dira.

2018. ekitaldiko aurrekontua 2019ra luzatzearen ondorioz, EAeko Administrazioiko askotariko Sailek ez dute luzatutako beren aurrekontuetan zuzkidura nahikorik ekintzen sorta baterako, eta horiek finantzatzeko beharra dute.

- LEHENDAKARITZA	1.999.169 €
- GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	3.500.000 €
- OSASUNA	28.723.109 €
- KULTURA	1.000.000 €
KREDITU OROKORRAREN HANDITZEA GUZTIRA	35.222.278 €

Ogasun eta Ekonomia

OGASUN ETA EKONOMIA SAILAK 2019KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak proposatuta, Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu du gaurko bileran.

Planak Finantza Politikako Zuzendaritzaren eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren diru-laguntzak jasotzen ditu.

Planak, nolahi ere, Ogasun eta Ekonomia Sailak finantza-politikaren, finantza-erakundeekiko harremanen, bermeen prestazioaren, aseguru-bitartekaritzako jardueraren kontrolaren, gizarte-aurreikuspeneko entitateen eta eskualde-politikaren arloetan esleituta dituen eskumenei jarraikiz kudeatzen dituen diru-laguntzak biltzen ditu.

Diru-laguntzaren kontzeptuaren barruan, gauzako laguntzak biltzen ditu Planak, hala nola sariak (onuradunak aldez aurretik eskatu gabe ematen direnean izan ezik) eta pertsonaren jarduerari lotuta ematen diren beste laguntza batzuk.

Sailak sustapen-jardueraren bidez bete nahi dituen helburuak askotarikoak dira, hainbat eskumen-eremu baititu esleituta:

- 18.000 euroko diru-laguntza Euskadiko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen Federazioarentzat, haren funtzionamendurako eta beste sustapen-funtzio batzuetarako.
- 24.000 euroko diru-laguntza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearentzat, enplegu-modalitateko lehentasunezko BGAE berrien eraketa bultzatzeko.
- 15.000 euroko diru-laguntza Euskadiko Bitartekarien Kontseiluari prestakuntza-ikastaroak antolatzen eta bitartekaritza eta Euskadiko Bitartekarien Erregistroa sustatzen laguntzeko.
- ETEek eta enpresaburu indibidualek zirkulatzaileragiketetarako edo Luzaro K.F.E. Sozietate Anonimoaren bidez inbertsio-eragiketetarako finantzaketa lortzeko aukeraren sustapena, 1.495.000 euroko zenbateko batez.
- Elkar bermatzeko sozietateen jardueraren sustapena, bazkideek (ETEek edo enpresaburu indibidualek) finantzaketa lortzeko aukera errazten duten erakunde mutualistak diren heinean, 5.733.250 euroko zenbateko batez.
- 1.500 euroko diru-laguntza "Non ikusten duzu Europa Euskadin?" argazki-lehiaketaren VIII. ediziorako. Lehiaketaren helburuak honako

hauek dira: EAEko lurraldeko garapen ekonomikoa bultzatzen duten inbertsio-jarduerak, proiektuak eta ekimenak finantzatzen dituen EGEF funtsaren eskualde-garapeneko parte-hartzea EAEko gazteei ezagutaraztea, Europari lotutako alderdien eta gaien inguruko interesa piztea, eta sare sozialen erabilera –Europako hedabide berri gisa– eta gazteen artean sortutako egitura finkatzea.

Ogasun eta Ekonomia Sailaren 2019ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren dokumentu osoa Sailaren webgunean dago eskuragarri: www.euskadi.eus

Hezkuntza

IRAKASKUNTZA-KOOPERATIBENTZAKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titularrak diren kooperatibentzat dirulaguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 33.000 euroko diru kopurua du.

Deialdi honen xedea da irakaskuntza-kooperatibei dirulaguntzak ematea, ikastetxe horietako ikasleei zein haien gurasoei zuzenduriko prestakuntza jarduerak egiteagatik dituzten gastuetan laguntzeko. Diruz lagundu ahal izango dira ikasleei zuzenduriko jarduera osagarriak ere (irteera, txango edo topaketak).

Deialdi honen bidez dirulaguntza jaso ahal izateko, jarduerak inklusibitate eta hezkidetzaz perspektibaz diseinatu eta garatu beharko dira. Diruz lagunduak izan daitezke ikastaro, mintegi nahiz tailerrak ematerakoan sortu diren gastuak, bai eta horien antolaketak eragindakoak ere (hizlariaren bidaia, ostatua, edo mantenu gastuak, lokalen alojera, eta prestakuntza jarduerarako materiala erostea).

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2019KO URTARRILETIK OSAKIDETZAKO LANGILEEI LANBIDE KARRERA ORDAINITZEA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak, Osasun sailburuak proposatuta, baimena eman du Osakidetzako langileen lanbide-karrera aitortzeko prozesuaren ebazpenari dagozkion kopuruak ordain daitezzen. **16,7 milioi euro bideratuko dira Osakidetzako 9.014 enplegaturentzako osagarria ordaintzera.**

Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aldeko txostena jaso eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluak martxoaren 27an onetsi ondoren, Gobernu Kontseiluak gaur erabaki du **ondorio ekonomikoak aurtengo apirilean ordainduko direla, oro har eta atzeraeraginez, 2019ko urtarrilaren batetik.** Osakidetzako Zuzendaritzak, otsailean, ordainketa egiteko konpromisoa iragarri zien Mahai Sektorialeko ordezkari sindikalei.

Lanbide-karrera Osakidetzako langileei zuzendutako formula bat da, banaka aurrera egiteko, ezagutzen, asistentzia-eginkizunetako esperientziaren eta ikerketaren inguruan eta beren erakundearen helburuak betetzean duten lanbide-garapenaren aintzatespen gisa.

Segurtasuna

ITSASERTZAREN KUTSADURARI AURRE EGITEKO EAEKO LARRIALDIETARAKO PLAN BEREZIAREN PROIEKTUAREN BERRI EMAN DA

Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak 2018ko urrian aldeko txostena eman ondoren, gaur informatu da Gobernu Bileran, Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko EAEko Larrialdietarako Plan Bereziaren Proiektuaz, behin Estatuko Babes Zibileko Kontseilu Nazionalako Batzorde Iraunkorrak atzo proiektua egokitzat jo eta gero.

Itsasertza EAEko Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea (LABI) garatzeko prozedura bat da, eta itsasoko kutsadura-egoerei aurre egitea du helburu, horien intzidentzia arriskutsua izan badaiteke pertsonentzat eta ondare materialarentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak 2018ko urrian eman zuen Itsasertzaren Kutsadurari Aurre Egiteko EAEko Larrialdietarako Plan Bereziaren Proiektuaren aldeko txostena.

Gobernu Bileran onartu ahal izateko, Barne Ministerioko Babes Zibilerako Kontseilu Nazionalaren Batzorde Iraunkorraren azken administrazio-tramitea bete behar zen.

Planaren lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertza da, eta, eragin operatiboetarako, lurralde-zatiketaekin bat datozen bi eremutan banatzen da: Bizkaia eta Gipuzkoa.

Planean arriskuen analisia egiten da, eta horren baitan baldintza meteorologikoen, ozeanografikoen eta ingurumenekoen araberako kutsadura-arriskuak ebaluatzen dira. Horrez gainera, instalazioen ezaugarriak eta horien baldintza operatiboak ere aztertzen dira, hala badagokio eremurik zaurgarrienak identifikatuta aplikazio-esparruko sentsibilitate-mapen bidez, Plana aktibatzen den egoeretan eremu horiek babesteko.

Horrez gainera, plana zein egoeratan aktibatuko den zehazten da, gerta litezkeen egoerak eta faseak kontuan hartuta, gertakariaren larritasunaren arabera.

Planean, besteak beste, beste plan batzuekin koordinatzeko sistema ere jaso da, eta bertan zehazten da plana maila bereko edo goragoko beste plan batzuekin koordinatzeko eta integratzeko prozedura, Erantzuteko Sistema Nazionalan ezarritako irizpideei jarraituz.

Bestalde, planeko jarduketa-prozeduran daude zehaztuta gorabeheraren bat gertatzen bada aktibatu behar diren protokoloak eta kalteak handiagoak izatea prebenitzea eta galaraztea eta jada egindako kalteak konpontzea helburu duten berehala erantzuteko neurriak.

Presidencia

APROBADAS LAS CONVOCATORIAS DE BONOS ELKARREKIN, POR UN TOTAL DE 600.000 EUROS

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde hoy las convocatorias para este año de las tres líneas de subvenciones que se recogen en el programa **Bonos Elkarrekin**, por un total de 600.000 euros.

En concreto, se han aprobado las convocatorias de los Bonos Elkarrekin en las modalidades: proyectos en el ámbito educativo (350.000 euros); convivencia local (150.000 euros); y participación ciudadana (100.000 euros).

El programa de Bonos Elkarrekin fue puesto en marcha en 2014 por el Gobierno Vasco, como una iniciativa de refuerzo adicional en la promoción de la paz, los derechos humanos, la no violencia y los principios democráticos. Su objetivo es apoyar y subvencionar proyectos conjuntos entre una entidad sin ánimo de lucro y un centro educativo, un ayuntamiento o una institución del ámbito de la participación ciudadana.

Para la financiación de estos proyectos, la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos, encargada de su gestión, ha previsto un **sistema de bonos** que consiste en una aportación económica por hora justificada de servicios de formación o dinamización en materias tales como cultura de paz, derechos humanos, solidaridad con las víctimas, reconciliación y resolución de conflictos.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO, EN COLABORACIÓN DE ITELAZPI, AMPLÍA EL PROGRAMA DE EXTENSIÓN DE BANDA ANCHA ULTRARRÁPIDA A 82 ZONAS RURALES MÁS

- **El Gobierno y la sociedad pública de telecomunicaciones renuevan el convenio para ampliar, el programa que camina hacia conectividad plena de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Convenio de colaboración entre el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, del Gobierno Vasco, y la sociedad pública [Itelazpi S.A.](#), para la gestión del programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en núcleos de población de Euskadi para los ejercicios 2019-2020*”. Así, [Itelazpi S.A.](#), la sociedad de telecomunicaciones del Gobierno Vasco, será la entidad colaboradora en la gestión de las ayudas para extender la banda ancha a otras 82 zonas rurales y menos pobladas de Euskadi.

Se trata de una renovación del convenio anterior para realizar este mismo trabajo entre los años 2017 y 2019. En el programa anterior, se eliminaron 391 “*zonas blancas*”, el 72% de ellas en Araba, núcleos poblacionales muchas veces aislados y rurales que no son atractivos para las inversiones de los operadores privados porque carecen de infraestructuras de telecomunicaciones.

AGENDA DIGITAL EUSKADI 2020

Las ayudas para extender las redes de banda ancha de nueva generación en núcleos de población de Euskadi se suman a las actuaciones conjuntas y coordinadas, del Gobierno Vasco y las tres diputaciones forales, para habilitar la banda ancha en los 1.700 edificios públicos, en los parques, polígonos y áreas industriales, así como en todos los núcleos de población de Euskadi.

Este ambicioso y estratégico proyecto del Gobierno Vasco se enmarca en la “[Agenda Digital Euskadi 2020](#)”, aprobada en 2016. El Gobierno Vasco ha realizado una apuesta clara por la mejora de la conectividad de las personas que residen y las empresas que se ubican en cualquier núcleo de población, independientemente de cuál sea su número de habitantes y dimensión. El objetivo final es la mejora de la conectividad de los centros públicos, las empresas y los hogares que permitan consolidar a Euskadi como un territorio inteligente, un *Smart Country*.

Así mismo, este programa permite que Euskadi cumpla con los objetivos establecidos en la “*Agenda Digital de Europa 2020*” que establece la universalización de la banda ancha de nueva generación (al menos 30 Mbps) a

la totalidad de la población y lograr para el 2020 que el 50% de la población disponga de servicios contratados de banda ancha ultrarrápida de velocidades superiores a 100 Mbps.

CONVENIO 2020

El acuerdo aprobado, hoy, por el Consejo de Gobierno establece que será la sociedad pública [Itelazpi S.A](#) se encargará de:

- Examinar la documentación de los proyectos presentados, y requerir, si fuera necesario, la documentación que sea precisa para la correcta comprensión y estudio del mismo.
- Evaluar los proyectos y remitirlos al Órgano de Evaluación.
- Proponer las ayudas y remitirlas al Órgano de Evaluación.
- Hacer inspecciones para verificar la ejecución de los proyectos.
- Realizar los informes relativos al alcance de las modificaciones solicitadas.
- Proponer, en su caso, la incoación de expediente de incumplimiento por incidencias relativas a la ejecución del proyecto.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO REGULA EL REGISTRO Y CONTROL DE LOS ESTABLECIMIENTOS DEL SECTOR DE LA ALIMENTACIÓN ANIMAL DE EUSKADI

- **La alimentación animal constituye un pilar fundamental para la seguridad alimentaria, ya que es uno de los primeros eslabones de la cadena de producción de alimentos**
- **En la actualidad existen en Euskadi un total de 335 empresas del sector de la alimentación animal, de las que 128 de ubican en Bizkaia, 114 en Guipuzcoa y 93 en Álava.**

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado, a propuesta de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, Arantxa Tapia, el Decreto sobre Registro y Control Oficial del sector de la Alimentación Animal, que crea y regula el registro de establecimientos y organiza los controles oficiales en el ámbito de la alimentación animal en Euskadi. El objeto es garantizar que los piensos, como primer eslabón de la cadena agroalimentaria, sean seguros y saludables, por su impacto directo en la protección de la salud. Para ello, aúna en una única norma el control oficial de la alimentación animal en Euskadi.

La alimentación animal constituye un pilar fundamental para garantizar la seguridad alimentaria, ya que es uno de los primeros eslabones de la cadena de producción de alimentos. Por ello, desde el Gobierno Vasco se ha venido apoyando el desarrollo de iniciativas en colaboración con el sector de piensos en Euskadi, permitiendo con el esfuerzo realizado avanzar, mejorar y contar con un sector comprometido con la seguridad. La aprobación de este decreto, para la que se ha contado con las tres Diputaciones Forales, las organizaciones profesionales, y las asociaciones y entidades sectoriales, es un paso más en ese sentido.

El Registro será público y en la página web www.euskadi.eus, apartado correspondiente al área de agricultura, estará disponible la información sobre denominación o razón social del establecimiento, domicilio, actividad y número de identificación. Estará conectado con el Registro General dependiente del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, a través de la aplicación informática denominada “Sistema informático de registro de establecimientos en la alimentación animal” (SILUM).

Según datos de 2018, en la actualidad existen en Euskadi un total de 335 empresas del sector de la alimentación animal, de las que 128 de ubican en Bizkaia, 114 en Guipuzcoa y 93 en Álava. Este decreto será de aplicación a:

- Los establecimientos del sector de la alimentación animal radicados en la Comunidad Autónoma de Euskadi que elaboren, comercialicen,

comercien, transporten y, en general, operen con materias primas, premezclas, piensos compuestos, piensos medicamentosos o cualquier otro producto, con destino a la alimentación animal.

- Las explotaciones ganaderas radicadas en la Comunidad Autónoma de Euskadi que fabriquen piensos para las necesidades de su ganadería.
- Los productos para la alimentación animal que se fabriquen, comercialicen, circulen o se consuman en el ámbito territorial de Euskadi, incluyendo los piensos medicamentosos y los piensos fabricados con coccidiostatos e histomonostatos.
- En general a cualquier establecimiento o empresa, que, de conformidad con la normativa vigente, deba ser incluida en el Registro que se crea mediante el presente decreto, o deba ser objeto del control oficial.

Quedan excluidos del ámbito de aplicación de este decreto los productos considerados medicamentos veterinarios por la normativa vigente, y las actividades industriales o comerciales de los mismos, así como la producción primaria de piensos.

Las solicitudes de autorización se presentarán de forma telemática a través de la Sede Electrónica del Gobierno Vasco, y se recepcionarán en el registro electrónico de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. El formulario se encuentra disponible y permanentemente actualizado en la página web www.euskadi.eus, en la información correspondiente al área de agricultura.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

APROBADO EL DECRETO QUE REGULA LOS REQUISITOS PARA LAS INSTALACIONES Y ACTIVIDADES DEL COMPOSTAJE DE CERCANÍA

El Consejo de Gobierno Vasco, a propuesta del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, ha aprobado hoy el Decreto por la que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades del compostaje de cercanía; es decir, el producido por hogares, comunidades de vecinos y ayuntamientos, cuyo volumen no exceda de 10 metros cúbicos. Se trata del primer decreto que se dicta en todo el Estado para regular este tipo de actividades.

El compostaje doméstico y comunitario son actividades promovidas por los estados miembros de la Unión Europea y en documentos comunitarios como el Libro Verde sobre la gestión de los biorresiduos. Su impulso se recoge como un objetivo en el Plan de Prevención y Gestión de Residuos del País Vasco. Sin embargo, se carecía de una regulación específica, lo que ha hecho necesario abordarla mediante esta disposición normativa, tal y como, además, han solicitado las Diputaciones Forales en el seno del Organismo de Coordinación de Residuos Urbanos.

De hecho, dichas iniciativas venían implantándose y desarrollándose en Euskadi sin un marco suficientemente definido que estableciera límites entre este tipo de actuaciones de prevención de residuos en sentido amplio y aquellas otras actividades de tratamiento de residuos sometidas a autorización de gestión. Por ello, con la finalidad de proteger el medio ambiente y la salud de las personas, el decreto aprobado establece las condiciones que deben reunir las instalaciones y actividades donde se composten los biorresiduos de origen doméstico, fijándose requisitos sobre los residuos que pueden ser objeto de compostaje comunitario, la ubicación y características de las instalaciones, y los controles del proceso y de calidad del compost resultante.

Asimismo, se impone la necesidad de que las instalaciones dispongan de una persona titular y un responsable técnico, cuyas funciones quedan también especificadas. Los residuos asimilables a los domésticos generados en centros educativos también pueden ser compostados en el lugar en el que se producen.

Los biorresiduos constituyen una fracción muy importante de los residuos generados en los hogares como, así como los similares a los anteriores generados en servicios e industrias. En Euskadi suponen el 28% de los residuos domésticos, un total de 317.781 toneladas en 2016.

Respecto a los posibles usos del compost producido, el Decreto se remite a la normativa aplicable según el uso al que se pretenda destinar el material. En ausencia de una reglamentación específica, se posibilita que las personas usuarias puedan utilizar el compost obtenido en sus propios terrenos, con la cautela de evitar el contacto con la cadena alimentaria.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

APROBADO EL DECRETO QUE PROMUEVE LA VALORIZACIÓN DE LAS ESCORIAS NEGRAS DE ACERÍA PARA SU USO EN OTRAS ACTIVIDADES

El Consejo de Gobierno, a propuesta del departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, ha aprobado el Decreto que regula la valorización de las escorias negras procedentes de la fabricación de acero en hornos de arco eléctrico. Debido a la gran concentración de acerías existente en Euskadi, las escorias producidas en estas plantas representan el segundo mayor volumen de residuos no peligrosos generados en la Comunidad Autónoma, con un 16% del total.

El decreto se enmarca dentro de la estrategia europea en pro de la “economía circular”, que pretende mejorar la eficiencia en el uso de los recursos naturales, favoreciendo su reutilización como materia prima, reduciendo así la extracción de nuevos materiales y el vertido de residuos. La economía circular es uno de los pilares para un crecimiento sostenible y la lucha contra el cambio climático.

Siguiendo esta estrategia, la nueva norma, que actualiza el decreto anterior de 2003, regula las operaciones de valorización de escorias negras procedentes de la fabricación de acero en hornos de arco eléctrico y su posterior utilización como árido siderúrgico, garantizando la protección del medio ambiente y salud pública.

Hasta ahora, la normativa existente no ha conseguido reducir sustancialmente la eliminación de las escorias mediante depósito en vertedero, con los consiguientes impactos ambientales negativos que ello conlleva. El decreto pretende impulsar la valorización de estas escorias para obtener materiales granulares utilizables en construcción y otros usos, generando materiales con valor para el mercado.

Las investigaciones desarrolladas han acreditado la bondad de la utilización de áridos siderúrgicos en el sector de la construcción (hormigones) y en el de la fabricación de cemento, reduciendo así los impactos ambientales derivados de la extracción y procesado de las materias primas a las que sustituyen y de su posterior eliminación mediante depósito en vertedero.

El decreto consta de una parte expositiva, once artículos, una disposición transitoria, una disposición derogatoria, tres disposiciones finales y dos Anexos. Además, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación territorial y Vivienda ha elaborado una guía técnica de posibles usos en el sector de la construcción, con el fin de promover una mayor utilización de este material.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO DESTINA 35,2 MILLONES DE EUROS A LEHENDAKARITZA, GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO, SALUD Y CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA PARA ACOMETER ACTUACIONES NO INCLUIDAS EN EL PRESUPUESTO PRORROGADO PARA 2019

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la ampliación del Crédito Global en 35.222.278 euros para los Departamentos de Lehendakaritza, Gobernanza Pública y Autogobierno, Salud y Cultura y Política Lingüística con el objeto de financiar diferentes actuaciones no incluidas en el presupuesto prorrogado para 2019.

La prórroga presupuestaria del ejercicio 2018 al 2019 ha motivado que los diversos Departamentos de la Administración de la CAE tengan necesidad de financiar una serie de actuaciones sin dotación suficiente en sus respectivos presupuestos prorrogados.

-LEHENDAKARITZA	1.999.169 €
- GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO	3.500.000 €
- SALUD	28.723.109 €
- CULTURA	1.000.000 €
TOTAL AMPLIACIÓN CRÉDITO GLOBAL	35.222.278 €

Hacienda y Economía

EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA APRUEBA EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2019

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del Consejero de Hacienda y Economía, el Plan Estratégico de Subvenciones para el año 2019 del Departamento de Hacienda y Economía.

El Plan incluye las subvenciones de la Dirección de Política Financiera y de la Dirección de Economía y Planificación.

Este Plan comprende las subvenciones que se gestionan por el Departamento de Hacienda y Economía en virtud de las competencias que se le atribuyen en materia de política financiera y relaciones con las entidades financieras, prestación de garantías, control de la actividad de mediación de seguros, entidades de previsión social y política regional.

Dentro del concepto de subvención, el Plan comprende las ayudas en especie consistentes en premios, -excepto que se otorguen sin la previa solicitud de la persona beneficiaria-, y otras ayudas que se otorguen en consideración a las actividades de la persona

Los objetivos que se plantea cumplir este Departamento con la actividad de fomento son de distinta naturaleza habida cuenta de los diferentes ámbitos competenciales atribuidos:

- Subvención de 18.000 euros a la Federación de Entidades de Previsión Social Voluntaria de Euskadi para su funcionamiento y otras funciones de fomento.
- Subvención de 24.000 euros a las Entidades de Prevision Social Voluntaria para apoyar la constitución de nuevas EPSV preferentes de la modalidad de empleo.
- Subvención de 15.000 euros para apoyar al Consejo de Mediadores de Euskadi en la organización de Cursos de Formación y en la promoción de la Mediación y del Registro de Mediadores del País Vasco.
- Fomento del acceso a la financiación por parte de pymes y personas empresarias individuales para operaciones de circulante o para operaciones de inversión por medio de Luzaro E.F.C. S.A. por un importe de 1.495.000 euros.
- Potenciación de la actividad de las sociedades de garantía recíproca como entidades mutualistas que favorecen el acceso a la financiación de sus socios (pymes o personas empresarias individuales) por un importe de 5.733.250 euros.

- Subvención de 1.500 euros para la VIII edición del concurso fotográfico “¿Dónde ves Europa en Euskadi?” cuyo objetivo consiste en dar a conocer a la juventud de la CAPV la participación en el desarrollo regional del FEDER, fondo que financia actividades inversoras , proyectos e iniciativas realizadas que dan impulso al desarrollo económico del territorio de esta Comunidad, despertar el interés de aspectos y temáticas relacionadas con Europa y afianzar la utilización de redes sociales como nuevo medio de difusión en Europa y su entramado entre la ciudadanía joven.

El documento íntegro del Plan Estratégico Subvenciones 2019 del Departamento de Hacienda y Economía está disponible en la página web del Departamento: www.euskadi.eus

Educación

CONVOCATORIA DE AYUDAS A LAS COOPERATIVAS DE ENSEÑANZA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en el día de hoy, a propuesta de la Consejera de Educación, una Orden por la que se convocan ayudas destinadas a las Cooperativas de Enseñanza titulares de centros docentes de enseñanza no universitaria. Esta orden cuenta con un importe global de 33.000 euros.

El objeto de esta orden es convocar ayudas para las cooperativas de enseñanza, para colaborar en los gastos por ellas soportados por la realización de actividades formativas dirigidas tanto al alumnado de los diferentes centros educativos como a madres y padres de éstos, durante el año 2019. También se contemplan como subvencionables los gastos para el desarrollo de actividades complementarias (salidas, excursiones o encuentros) dirigidas al alumnado.

Las actividades formativas objeto de esta convocatoria deberán ser diseñadas y desarrolladas desde una perspectiva inclusiva y coeducadora. Podrán ser subvencionables aquellos gastos derivados de la impartición de cursos, seminarios, talleres, conferencias y los correspondientes a su organización (dietas por causa del desplazamiento, alojamiento o la manutención de la persona ponente, alquiler de locales, compra de materiales ligados a actividad formativa).

Salud

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL ABONO DE LA CARRERA PROFESIONAL AL PERSONAL DE OSAKIDETZA DESDE ENERO DE 2019

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la Consejera de Salud, ha dado luz verde a realizar el abono de las cantidades correspondientes a la resolución del proceso de reconocimiento de la Carrera Profesional del personal de Osakidetza. **Se destinarán 16,7 millones de euros al pago del complemento dirigido a 9.014 personas empleadas de Osakidetza.**

Una vez recibido el informe favorable de la Oficina de Control Económico y tras la aprobación por el Consejo de Administración de Osakidetza con fecha 27 de marzo, el Consejo de Gobierno ha acordado hoy que **los efectos económicos se abonarán este mismo mes de abril, con carácter general y retroactivo, desde el uno de enero de 2019.** La Dirección de Osakidetza anunció en febrero a representantes sindicales de la Mesa Sectorial el compromiso de realizar el pago.

La Carrera Profesional es una fórmula destinada al personal de Osakidetza para progresar de forma individualizada, como reconocimiento a su desarrollo profesional en cuanto a conocimientos, experiencia en las tareas asistenciales, investigación y cumplimiento de los objetivos de la organización en la cual prestan sus servicios.

Seguridad

LUZ VERDE AL PROYECTO DEL PLAN ESPECIAL DE EMERGENCIAS DE EUSKADI ANTE LA CONTAMINACIÓN DE LA RIBERA DEL MAR (ITSASERTZA)

Tras contar con el informe favorable de la Comisión de Protección Civil de Euskadi en octubre de 2018, el Consejo de Gobierno ha sido informado hoy sobre el Proyecto del Plan Especial de Emergencias de Euskadi ante la Contaminación de la Ribera del Mar (Itsasertza) una vez que la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil del Estado se pronunciara ayer favorablemente acerca de la idoneidad de dicho proyecto.

Itsasertza es un procedimiento de desarrollo del Plan de Protección Civil de Euskadi (LABI) dirigido a hacer frente a aquellas situaciones de contaminación marina cuya incidencia pueda llegar a provocar riesgos para las personas y los bienes materiales.

En octubre de 2018, la Comisión de Protección Civil de Euskadi ya informó favorablemente en relación al Proyecto del Plan Especial de Emergencias de Euskadi ante la contaminación de la Ribera del Mar (Itsasertza).

La aprobación del mismo por parte del Consejo de Gobierno dependía de la resolución de un último trámite administrativo de la Comisión Permanente del Consejo Nacional de Protección Civil perteneciente al Ministerio del Interior.

El ámbito territorial del plan abarca toda la costa correspondiente a la Comunidad Autónoma del País Vasco y a efectos operativos se divide en dos áreas que coinciden con la división territorial: Bizkaia y Gipuzkoa.

En plan recoge el análisis de riesgos, en el que se hace una evaluación de los posibles riesgos de contaminación en función de las condiciones meteorológicas, oceanográficas y ambientales, así como de las características y condiciones de operación de las instalaciones, identificando, en su caso, las áreas más vulnerables mediante los correspondientes mapas de sensibilidad de la zona incluida en su ámbito de aplicación, con el fin de protegerlas en las situación de activación del Plan.

Además, se determinan las circunstancias de activación del plan, según las fases y situaciones que puedan presentarse, en función de la gravedad del suceso.

Entre otros aspectos, en el plan se recogen el sistema de coordinación con otros planes, en el que se determina el procedimiento de integración y coordinación del plan con otros de igual o superior rango, de acuerdo con los criterios establecidos en el Sistema Nacional de Respuesta.

También, el plan establece el procedimiento de actuación donde se definen los protocolos que deben ponerse en práctica en caso de contingencia, así como las medidas de respuesta inmediata que tienen por objetivo la prevención y evitación de nuevos daños y la reparación de los ya producidos.